



Urteaga kalea, 21
Tel. 943 76 25 47
Faxa 943 76 02 94
20570 **BERGARA** (Gipuzkoa)

2020 Liztor Beltza Kanpaina

DEBA GARAIA Elkarte eta Bergarako Udalararen arteko lankidetzaren HITZARMENA,
Gipuzkoako Foru Aldundiak Landa Garapenerako Elkarrekin adostutako prozedura baitan
“Liztor Beltzaren kontrolerako” hartutako neurriak betetzeko.

BILDURIK:

- Jose Ramon Zubizarreta Alegria jauna, NAN zenbakia **DEBA GARAIA Elkarteko**
lehendakaria dena.
- Gorka Artola Alberdi Jauna, NAN zenbakia **Bergarako Alkate** dena.

ADIERAZTEN DUTE:

Liztor asiaticoen kontrolerako Foru Aldundiak Udalekin prozedura modu bat martxan jarri duela, horretarako NEKAGIP bidez aplikazio informatiko bat martxan jarri eta Udalei aukera ezberdinak emanez. Aplikazioaren bidez liztor beltzaren Gipuzkoa mailako edapen datuak biltzen dira eta baita Udalak bere kabuz habiak tratatu ezin dituztenean eta pertsonengan arrisku bat suposatzen duenean Foru Aldundiko beste zerbitzu batzuk aktibatzeak aukera ematen du.

Eskualde mailan Foru Aldundiak martxan jarritako prozedura gestionatzeko Landa Garapen Elkarrekin koordinazioa beharrezkoa zela ikusi zen eta Udal bakoitzak bere kontura bioziden aplikatzaile bat kontratatu beharrean eta kostu ekonomikoak gutxitzeko asmoz 2014ko kanpainan Deba Garaia Elkarrekin bidez egitea onartu zen, hala gauzatuz orain artekoan. Honen bidez 2020rako kanpainako prozedura DEBA GARAIA eta BERGARAKO Udalararen arteko konpromisoak adosten ditugu.

ALDEEN KONPROMISOAK:

Foru Aldundiak Liztor Beltzaren kontrolean jarri duen prozedura behar bezala jarraitzeko egin behar diren lanak era honetara banatzea:

BERGARAKO UDALA:

- Deia jaso, Liztor Beltza dela konfirmatu, larrialdiko kasua den edo ez erabaki, gunea marra berdez señalizatu,
- **Web orrian** datuak sartu eta larritasunaren arabera:
 - Larritasun kasua: Kanpoko baliabideak behar diren bidetik jarraitu, eta larrialdiko zerbitzuen mezuak web gunetik jarraitu
 - Larritasun kasua ez bada: Baliabide propioak jarri eta **DEBA GARAI**Ara deitu: **656781415 (M. Carmen), 661682593(Agurtzane)**
- Larritasun kasua ez denean **DEBA GARAI**Arekin batera habia suntsitzeko modua adostu eta Udaleko langile bat laguntzaile lanak egiteko jarri.
- Habia suntsitu ondoren, marra gorria egin eta web orriko informazioa osatu. Habiak kentzea erabakitzen bada poltsa baten sartu eta erre.
- Suntsitzeko modua tiroaz bada, Udalak berak gestionatuko du, baita tranpak jarri behar badira eta bi kasuetan Basanimalien eta Landareen Zerbitzuan parte eman behar da, **Tel. 943112149**
- Baliabide ekonomikoak: **DEBA GARAI**AK kanpaina bukatu ondoren sortutako gastu guztiak tratatutako batz besteko habi kopuruaz banatuko ditu eta Udal bakoitzak kuota modura ordainduko du. Erantzule Teknikoaren kostua Foru Aldundian kontura da eta Deba Garaiak bere gestio eta antolaketa gastuak bere gain hartzen ditu (aurreko kanpainako erreferentzia: 92,72 €/habiko)

DEBA GARAI

- Habia suntsitzeko prozedura adostu Udalarekin, modua, baliabideak, eguna eta ordua planifikatu.
- Biozida Aplikazioa egin, horretarako baimenduta dagoen pertsona kontratatuz, bioziden aplikatzaile txartela eguneratuta duen pertsona, Foru Aldundiko Erantzule Teknikoaren zerbitzua jaso ahal izateko.
- Biozida aplikatzaileak behar duen ekipoa eta segurtasun neurriak ezarri eta Foru Aldundiko Erantzule Teknikoaren esanetara lan egin.
- Bestelakoak Udaletxeen beharren arabera.

Bai Udalak bai Deba Garaiak Lan Arriskuen Preventzio Planean ezarritako neurriak hartuko dituzte

Eta dokumentu honetan jasotakoaz adostasuna azaltzeko, akordio hau izenpetzen dute, Bergaran 2020ko uztailaren 3an.

